

PRENTSA OHARRA

Markina-Xemeinek argiteri publikoaren gastua %41ean murriztu du

Markina-Xemeingo Udalak azken hiru urteetan argiteri publikoan hainbat aldaketa eta moldaketa egin ditu. Aipatutako aldaketen helburua energia aurreztea, mantentze gastuak eta CO2 isurketak gutxitzea, eta udal argiteriaren kudeaketa hobetzea izan dira.

Egindako lanak bi zatitan banatu dira; lehenengoan, kontratatutako potentziak optimizatu dira. Izan ere, egindako azterketen ondorioz, argi eta garbi ikusi da beharrezkoa zen potentzia baino %30 gehiago zegoela kontratatuta. Bigarren zatian, 500 argiteriatan LED teknologiarara aldatu eta beharrezkoak ziren berriztatze lanak egin dira.

Orain arteko faseetan, kontsumo handienak zituzten gunek aldatzea erabaki zen; zehazki, Artibai kalea, zelaiaren ingurua, Kareaga Industrialdea eta Iderraga eta Aldaola auzuneak.

Egindako aldaketek energia %41ean aurreztea ekarri dute; hau da, 2012 urtean 685.140 kw/ordu kontsumituzetik, 2015 urtean 416.837 kw/ordu kontsumitzera pasatu delarik.

Hori horrela, Markina-Xemeinek 37.157,00 euroko onura ekonomikoa eduki du.

Ondorioz esan daiteke egindako aldaketak emaitzak ematen hasi direla.

Modu berean ezin da aipatu gabe utzi, teknologia berri horren erabilpenaren ondorioz, atmosferara egin diren CO2 isurketak 88,7 tonatan gutxitu direla.

2012 urte hasieran egindako argiteriaren aldaketek urte honetan, 2016an, jarraipena izango dute. Hurrengo pausua UNI pilotalekuan emango da. Orain dauden 1.000 W takofokoak LED teknologia duten 241 W takofokogaitik ordezkatuko dira.

Horrela, kontsumoa %80an gutxitzeaz gain, kontratuaren potentzia optimizatuko da. Aipatutako aldaketak, urtean, 5.000,00 euro inguru aurreztea suposatuko dio Markina-Xemeingo herriari.

Markina-Xemeinen, 2016ko uztailaren 22an.